

**Pertsona Fisikoen Errentaren  
Gaineko Zerga  
2017**




# 1

## Sarrera

- 1.1 Aitortzeko obligazioaren zehaztapenerako eskema grafikoa
- 1.2 Nork ez du aitortu behar?
- 1.3 Nork aitortu behar du?
- 1.4 Zer da ohiko egoitza?
- 1.5 Zer da familia unitatea?
- 1.6 Zer aitortu behar da?
- 1.7 Zer ez da aitortu behar?
- 1.8 Banaka tributatzea eta batera tributatzea
  - 1.8.1 Banaka tributatzea
  - 1.8.2 Bateratuta tributatzea
- 1.9 Zergaldia eta zergaren sortzapena
- 1.10 Nola aurkez daiteke aitortpena?
  - 1.10.1 Internet bidezko modalitatea
  - 1.10.2 Modalitate mekanizatua
  - 1.10.3 Autolikidazio proposamena
- 1.11 Zein da aitortpena aurkezteko epea?
- 1.12 Nola egiten da aitortpenen emaitza ordaindu eta itzultzeko?
- 1.13 Non aurkeztu behar da aitortpena?
- 1.14 Zergaren zati bate erlijio katolikora eta xede sozialetara ematea
- 1.15 Hautazko likidazioa (lanaren etekinak)
  - 1.15.1 Nork duen aukera.
  - 1.15.2 Nork ez duen aukerarik.
  - 1.15.3 Prozedura.



### 1.1 Aitortzeko obligazioaren zehaztapenerako eskema grafikoa



- Jardueren etekinak = Jarduera ekonomikoaren etekinak.
- Errenten egozpena= Nazioarteko gardentasun fiskala, paradisu fiskaletan dauden inbertsio kolektiboko erakundearen egozpena, eta IET eta EABetako bazkideei egindako egozpenak.
- HKE = Kapital higigarriaren etekinak.
- HZE = Kapital higiezinaren etekinak.
- GEHIK= Ondare irabazi eta galerak.
- LE = Lanaren etekinak.
- Kasu bereziak= Ordaintzaile bat baino gehiago egotea, kontratu bat baino gehiago sinatzea, pentsio konpentsagarriak jasotzea, atxikipenak kanpoko araudiaren arabera kalkulatzeko edo ordainketa Euskal Herritik kanpo egitea, peonadak edo egunsariak jasotzea, harrapakinetan parte hartzea, eta ordainsari aldakorrek atxikipen portzentajea kalkulatzeko kon-tuan hartutakoak baino handiagoak izatea.

## 1.2 Nork ez du aitortu behar?

Zergadunek ez dute aitortpena egin behar lortu dituzten errentak honako hauek bakarrik direnean:

- **20.000,00 eurotik beherako lan etekin gordinak urtean** (soldatak, pentsioak...), banaka aitortzen bada. Familia unitateko kideek batera aitortzen badute, muga hori etekin mota hau lortzen duen zergadun bakoitzarentzat aplikatuko da.
- **Kapitalaren etekin gordinak** (ondasun higiezin errentamendua, akzioen dibidenduak, kontu edo gordailuen interesak,...), eta **ondare irabaziak** (akzioen salmentagatik lortutako irabaziak, zozketa, joko eta abarretik datozen sariak, etab.), salbuetsitakoak barne bi kasuotan, batera hartuta **urtean 1.600,00 eurotik** gorakoak ez badira.

**ERNE:** 20.000,00 eurotik beherako lan etekinak lortu dituzten zergadunek ez dute aitortpena aurkezteko obligaziorik. Hala ere, aitortpena aurkeztera behartuta egongo dira baldin eta, etxea saltzeagatik, kontu korronteetako interesak jasotzeagatik, akzioak saltzeagatik, etab. lortu dituzten urteko errentak 1.600,00 eurokoak baino handiagoak badira.

Nolanahi dela ere, zergadunek banaka jasotzen dituzten urteko lan etekin gordinak 12.000,00 eta 20.000,00 euro bitartekoak badira, **aitortpena aurkeztu beharko dute** hurrengo egoera hauetako batean daudenean:

- Urtean zehar ordaintzaile batengandik baino gehiagorengandik lan etekinak jaso dituztenean edo, ordaintzaile beregandik jaso arren, honek atxikipena egiteko garaian etekinak metatu ez dituztenean kontzeptu berdinen edo desberdinen ondorioz ordainduak izateagatik, eta, orobat, urtean lan kontratu bat baino gehiago sinatu dutenean, kontratu hori laborala, administratiboa zein beste edozein motatakoa izan.
- Kontratuan aurreikusitako epea behin amaiturik, enplegu emaile berberarentzat lanean jarraitu dutenean edo urtean zehar berriro lanean hasi direnean, eta halaber, beren lan kontratua edo harreman laboral, administratibo edo beste edozein motatakoa luzatu dutenean.
- Epaileen aginduz, ezkontidearengandik edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikote-lagunarengandik pentsio konpentsagarriak edo urteko mantenurako ordainketak jaso dituztenean. Gurasoengandik urteko mantenurako jasotakoak ez dira sartzen.
- Lana dela—eta jasan dituzten atxikipenak edo konturako sarrerak foru erakundeek onartu ez duten araudi baten arabera kalkulatu direnean edo Euskal Herriko Foru Aldundiren bati ordaindu ez zaizkionean.
- Ordainsariak peonadaka edo egunsarika jaso dituztenean.
- Arrantzontzietako langileen kasuan, jaso dituzten ordainsariak, osorik edo zati batean, lortutako arrantzaren balioaren partaidetza bat direnean.
- Emaitzen edo antzeko parametroen arabera ordainsari aldakorrek jaso dituztenean, beti ere ordainsari horiek atxikipen portzentajea edo konturako sarrera kalkulatzeko kontuan hartu direnak baino handiagoak badira.
- Salbuespen, hoberi, murrizketa, kenkari edo beste edozein zerga onuraz gozatzeko ezarrita dauden baldintza, epe edo zirkunstantzietako bat bete ez dutenean, baldin eta horrek berekin badakar Zerga Administrazioari

zirkunstantzia horren berri ematea edo erregularizazio edo diru sarreraren bat egin behar izatea.

Urtean 12.000,00 eta 20.000,00 euro bitarteko lan etekin gordinak jasotzeagatik eta a)tik g)ra arteko kasuotako batean egozteagatik aitortpena aurkeztera behartuta dauden zergadunek aitortpen orokorra edo 1.15 apartatuan azaltzen den hautazko likidazioa aurkeztu ahal izango dute.

**LABURPENA:** urteko lan etekin gordinak (so, pentsioak,...), zergari lotuak eta salbetsi gabeak, **12.000,00** euroko kopurura iristen ez direnean, eta kapitalaren etekin gordinak eta ondare irabaziak 1.600,00 eurokoak baino txikiagoak direnean, zergadunek ez dute aitortzeko obligaziorik izango. Urtean **12.000,00** eta **20.000,00** euro bitarteko lan etekin gordinak jasotzen dituztenak ere ez daude aitortzera behartuta baldin eta erregelamenduz arautu diren egoera jakin batzuetan ez badaude (errentek atxikipenik izan ez dutenean edo, atxikipena eduki arren, atxikipen tasa bat ez datorrenean ordaindu behar den zergaren kuotarekin) eta kapitalaren etekin gordinak eta ondare irabaziak, salbuetsitakoak barne bi kasuotan, 1.600,00 eurotik beherakoak badira. Dena den, atxiki edo kontura sartu diren zenbatekoak berreskuratu nahi dituzten zergadunek aitortpena aurkez dezakete, horretara behartuta egon gabe ere.

## 1.3 Nork aitortu behar du?

Urtean beren **ohiko egoitza**<sup>1</sup> **Gipuzkoan izan duten zergadunek** aurkeztu behar dute Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena, beti ere zerga honi lotutako errentak lortu dituztenean.

Familia unitateko kideek<sup>2</sup> **lurralde desberdinetan dutenean beren ohiko egoitza**, eta batera aitortzea<sup>3</sup> aukeratzen badute, Gipuzkoako Foru Aldundian aurkeztuko dute aitortpena baldin eta familia unitatean oinarri likidagarriak handiena duen kideak Gipuzkoan badu bere ohiko egoitza, zerga indibidualizatzeko arauari jarraiki.

Bestalde, **badira zergadun batzuk aitortzeko obligazioa dutenak beren ohiko egoitza Gipuzkoan egon ez arren**. Hala gertatzen da, esate baterako, nazionalitate espainiarra duten pertsonekin, legez bananduta ez dagoen ezkontidearekin edo bere adingabeko seme-alabekin, Gipuzkoako zerga araudiari lotuta egon ondoren beren ohiko egoitza atzerrira aldatu dutenean. Honako hauek dira:

- Espainiako misio diplomatikoetako kideak: misio burua nahiz pertsonal diplomatiko, administratibo, tekniko edo zerbitzuetakoa.
- Espainiako bulego kontsularretako kideak: bulego buruak, eta atxikitako zerbitzuetako funtzionarioak eta pertsonala. Hala ere, ohorezko kontsulordeak, ohorezko kontsulatu-agentek edo horien menpeko langileak ez daude aitortzera behartuta.
- Espainiako Estatuko kargu edo enplegu ofizialen titularrak, nazioarteko erakundeen aurrean delegazio eta ordezkaritza iraunkorra dutenean, edo atzerriko delegazio edo begirale eginkizunetako parte direnean.
- Aktiboan dauden funtzionarioak, atzerrian kargu edo enplegu ofizial bat betetzen dutenean izaera diplomatiko edo kontsularrik izan gabe.

1 Ikus kapitulu honen barruan ageri den 1.4. apartatua, ohiko egoitzari buruzkoa.

2 Ikus kapitulu honen barruan ageri den 1.5. apartatua, familia unitatea zer den definitzen duena.

3 Ikus kapitulu honen barruan ageri den 1.8. apartatua. Bertan bi tributazio mota azaltzen dira, banakakoa eta baterakoa.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarentzat lan egiten duten funtzionarioak edo pertsonal laborala, Euskal Herriak atzerrian dituen bulegoetara bidali direnean.

Alabaina, aipatu diren kasuetan **bi salbuespen** daude. Horrela, ez daude aitortzerik behartuta:

- Aktiboan dauden funtzionario publiko ez direnak edo kargu edo enplegu ofizialen titular ez direnak, lehen adierazitako izaera bereganatu baino lehenagotik dutenean atzerrian ohiko egoitza.
- Legez bananduta ez dauden ezkontideak edo beren adingabeko seme-alabak, baldin eta ezkontideetako batek –ama zein aita izan– aipatu izaera bereganatu baino lehen hartu badute atzerrian ohiko egoitza.

Espainiak izenpetu dituen nazioarteko itunen arau bereziak aplikagarriak ez direnean, lehen aipatu diren arazoien ondorioz ohiko egoitza Gipuzkoan duten atzerritarrek –eta berdin atzerrian bizi diren gipuzkoarrek– ez dute aitortzerik aurkeztu behar.

Orobat, zerga honen zergadunak testamentu-ahalordea erabili gabe duten herentziak ere izango dira, hain zuzen 2016ko azaroaren 14ko 4/2016 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilaren berezitasunerako egokitzen duenak, II. Tituluan aurreikusitakoak.

#### LANGILE LEKUALDATUEN ARAUBIDE BEREZIA

Pertsona fisikoak lurralde espainiarrean etortzen badira, zuzenean edo nagusiki ikerketa eta garapenarekin lotuta dauden lan kualifikatuak bertan egiteko, eta, horren ondorioz, zerga egoitza Gipuzkoan kokatzen badute, aukera izango dute ez-egoiliarren errentaren gaineko zergagatik tributatzeko, egoitza aldatzen den zergaldian eta hurrengo bostetan, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren zergadunak izateari utzi gabe, betiere baldintza jakin batzuk bete gero.

## 1.4 Zer da ohiko egoitza?

Lurralde espainiarrean bizi den zergadun batek ohiko egoitza Gipuzkoan duela ulertzen da ondorengo irizpideak aplikatuta:

- **Egonaldiaren irizpidea:** zergaldiko egun gehienak Euskal Herrian ematen dituzten, egun gehiago igaroz Gipuzkoako Lurralde Historikoko Euskal Herriko beste bi lurralde historikoetako bakoitzean baino.

#### **Eman dezagun, adibidez, pertsona fisiko batek**

2017. urtean zehar 5 hilabete igaro dituela Madrilen (152 egun), 4 hilabete Donostian (121 egun), eta 3 hilabete Bilbon (92 egun). Madrilen egun gehiago eman baditu ere (152), Euskal Herrian igaro dituenak batzen baditugu (213), zergadun honi Euskal Herriko araudia aplikatu behar zaiola konturatzeko gara. Baina denbora gehiago egon denez Gipuzkoan beste lurraldean baino (121 egun Gipuzkoan eta 92 Bizkaian), zergadun horren egoitza fiskala Donostian izango da eta, beraz, Gipuzkoako Foru Aldundian ordaindu behar du zerga.

- **Interes gune nagusiaren irizpidea:** bere interes gune nagusia Gipuzkoan dagoenean, hau da, zergaren oinarri ezargarri gehiena lurralde horretan lortu duenean. Zerga oinarriaren osagaiak honako hauek izango dira:
  - Lanaren etekinak.
  - Kapital higiezinaren etekinak.
  - Ondasun higiezinetatik eratorritako ondare irabaziak.

- Jarduera ekonomikoaren etekinak.

Eman dezagun, adibidez, urtean zehar zergadun batek 151 egun pasa dituela Madrilen, 107 egun Gipuzkoan, eta beste 107 egun Bizkaian. Kasu honetan, lehen irizpidea (egonaldia) ez da nahikoa bere ohiko egoitza kokatzeko; jakin badakigu, ordea, egoitza hori Euskal Herrian dagoela. Zein foru ogasunetan tributatu behar duen jakiteko, bere interes gune nagusia Gipuzkoan edo Bizkaian dagoen begiratu behar dugu.

- **Azken egoitzaren irizpidea:** zerga honen ondorioetarako aitortutako azken egoitza Gipuzkoan dagoenean.

Lehen irizpidearekin ezin bada zehaztu ohiko egoitza foru edo estatuko lurraldean dagoen, bigarren irizpidea aplikatuko da. Eta lehen eta bigarren irizpideekin ezin bada zehaztu ohiko egoitza foru edo estatuko lurraldean dagoen, orduan hirugarrena aplikatuko da.

Bi kasu aurreikusi dira **ohiko egoitzaren presuntziorako**. Bi lotura mota hartzen dira oinarri: lotura ekonomikoa eta familia lotura.

### **Lotura ekonomikoa**

Zergadun batek ohiko egoitza Euskal Herrian duela irizpide ekonomikoaren arabera zehazteko hiru baldintza hauek bete behar dira:

- Lurralde espainiarrean bizitzea.
- Urte naturalean zehar 183 egun baino gehiago ematea lurralde espainiarretik kanpo.
- Bere jarduera enpresarial edo profesionalen edo interes ekonomikoaren gune nagusia Euskal Herrian egotea.

Era berean, pertsona fisiko bat Gipuzkoan bizi dela ulertuko da bere jardura enpresarial edo profesionalen edo interes ekonomikoaren gune nagusia lurralde horretan dagoenean.

### **Familia lotura**

Pertsona fisiko bat lurralde espainiarrean bizi dela uste bada, bere ohiko egoitza Gipuzkoako Lurralde Historikokoan izango du legez banandu gabeko ezkontidea eta haren menpe dauden adingabeko seme-alabak Gipuzkoan bizi direnean. Presuntzio honek kontrako frogan onartzen du.

**Ohiko egoitza aldatzen denean**, honako irizpideak hartuko dira kontuan:

- Gipuzkoan bizi diren zergadunek beste lurralde batera (foru edo estatuko lurraldera) aldatzen badute beren ohiko egoitza, edo beste lurralde batean bizi direnek (foru edo estatukoan) Gipuzkoara aldatzen badute, egoitza berriari dagokion tokian beteko dituzte zerga obligazioak, beti ere egoitza berria konexio puntu denean.
- Aitorpenean gutxiago ordaintzeko asmoz egiten diren egoitza aldaketek ez dute eraginik sortzen, salbu eta zergaduna gutxienez hiru urtez bizi bada etenik gabe egoitza berrian.

Beraz, baldintza hori betetzen ez den guztietan (hau da, ez badago gutxienez hiru urteko egonaldia etenik gabe), **egoitza aldaketarik ez dela izan** ulertuko da honako zirkunstantziak ematen direnean:

- Egoitza aldatu den urteko zerga oinarria edo hurrengo urtekoa aldaketa egin aurreko urteko oinarria baino gutxienez %50 handiagoa denean.

Familia unitate batean sartuta dauden pertsona fisikoek tributatzeko era desberdinak aukeratu badituzte urte horietan (banaka edo baterakoa), tributazio

era berdina hartuko da oinarriak alderatzeko, eta, hala badagokio, behar diren indibidualizazio arauak aplikatuko dira.

- Egoitza aldatu den urtean ordaintzen dena aurreko egoitzaren lurraldean aplikagarri zen araudiaren arabera ordainduko zena baino gutxiago denean.
- Ohiko egoitza lehengo lurraldera berriro aldatzen denean.

Egoitza aldaketarik ez dela izan uste bada, zergadunek ohiko egoitzaren Zerga Administrazioari aurkeztuko dizkiote beren aitortpenak, eta kasu horretan berandutza interesak ordainduko dituzte.

**Halaber**, egoitza fiskal berria **paradisu fiskal** bezala kalifikatuta dagoen herrialde edo lurralde batean frogatzea **ez da egoitza aldaketa izango**. Hau da, nazionalitate espainiarra duten pertsona fisikoek, Gipuzkoako zerga araudiari lotuta egon ondoren, egoitza fiskal berria paradisu fiskal horietako batean dutela frogatzen dutenean, **zerga honen zergadunak izango dira**. Erregela hori egoitza aldatzen den zergaldian eta hurrengo lauetan aplikatuko da.

## 1.5 Zer da familia unitatea?

Familia unitatea zeintzuk osatzen duten jakiteko, aitortzen den urteko **abenduaren 31n** familiak duen egoera zein den hartu behar da kontuan.

Familia unitatea bi motatakoa izan daiteke bakarrik:

- **Legez bananduta ez dauden ezkontideek, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikoteko kideek**, eta baleude, **adingabeko seme-alabek edota judizialki ezgaiak diren seme-alaba adindunek**, gurasoen aginte luzatu edo birgaitupean daudenean, osatzen dutena.

**ERNE:** adingabeko seme-alabak gurasoen baimenaz eurengandik aparte bizi direnean hortik kanpo gertatzen dira.

- Ezkontideak **legez banandu direnean, ezkontzalatuturirik ez dagoenean nahiz maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikoterik sortu ez denean, bai eta horretarako epaileak emandako ebazpena dagoenean ere**, familia unitatea gurasoetako batek eta aurreko apartatua aipaturiko baldintzak betetzen dituzten seme-alabek osatuko dute, norekin bizi diren alde batera utzita. Beste ezkontidea, halakorik bada, ez da familia unitateko kide izango.

Familia unitatea osatzeko, seme-alaba guztiak gurasoetako bati bakarrik egotziko zaizkio, bien arteko akordioz.

Akordiorik ez badago, epailearen erabakiz seme-alaben ardura osoa bere gain duen gurasoak osatuko du familia unitatea seme-alaba guztiekin batera. Kasu horretan, bi familia unitate egon daitezke, eta horietako bakoitza gurasoak eta judizialki berari bakarrik egotzi zaizkion seme-alabek osatuko dute. Hori gertatzen denean, familia unitatea osatzeko, beharrezkoa izango da seme-alabaren baten ardura epaileek ematea.

**ERNE:** inork ezingo du aldi berean bi familia unitateko kide izan.

## 1.6 Zer aitortu behar da?

Ondoko hauek aitortu behar dira:

- Lanaren etekinak (soldatak, pentsioak, etab.).
- Kapitalaren etekinak (kapital higikor zein higiezinarenak).
- Jarduera ekonomikoaren etekinak.
- Ondare irabazi eta galerak.
- Zergaren foru arauan ezartzen diren errenta egozpenak.

## 1.7 Zer ez da aitortu behar?

Jarraian adierazten diren errentak salbuetsita daude ekitaldiko zergatik eta, beraz, ez dira aitortpenean sartu behar:

1. Epaileen erabaki adela bide, **mantenurako** urteko gisa gurasoengandik jasotzen direnak.
2. **Terrorismo ekintzengatik** jasotzen diren **prestazio publikoak**.
3. Gizarte Segurantzak edo honen ordezkio entitateek **erabateko ezintasun iraunkorragatik edo baliazintasun handiagatik onartutako prestazioak, eta 55 urtetik gorako pertsonen ezintasun iraunkor osoagatik jasotakoak**.

**ERNE:** 55 urtetik gorako ezintasun iraunkor osoagatik jasotako prestazioen kasuan, prestazio horiek ez daude salbuetsita zergadunek jarduera ekonomikoaren etekinak izan dituztenean edo Gizarte Segurantzatik, pentsio planetatik, aseguratutako aurreikuspen planetatik, borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetatik, edo aseguru kolektiboetatik datozen pentsio edo prestazioak ez diren bestelako lan etekinak jaso dituztenean. Ondorio horietarako, lehendik emandako zerbitzuengatik jasotako diruzko edo gauza bidezko ordainsari sinbolikoak ez dira lan etekinatzat hartuko, urteko zenbatekoa 600 eurotik gorakoa ez bada. Dena den, prestazioak aldizka jasotzen direnean, baliazintasunagatik jasotakoak beti daude salbuetsita jasotzen diren lehen zergaldian.

Puntu honetan sartzen dira, baita ere, aurreko paragrafoan aipatutakoak bezalako egoerengatik jasotzen diren prestazioak, onuradunak hauek direnean:

- Norbere konturako langileen edo langile autonomoen Gizarte Segurantzaren erregimen berezian sartuta ez dauden profesionalak, Gizarte Segurantzaren erregimen bereziaren ordezkio gisa jarduten diren gizarte aurreikuspeneko mutualitateek onartutako prestazioak direnean.
- Kooperatibetako bazkideak, prestazioak borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateek onartutako direnean.

**ERNE:** kontuan eduki behar da kontzeptu honengatik aitortu behar ez den kopuruak ezin duela inoiz gainditu norbere konturako langileen edo autonomoen Gizarte Segurantzaren erregimen berezian sartuta ez dauden profesionalak edo bazkide kooperatibistek jasoko luketena pentsioa Gizarte Segurantzak ordainduko balie. Soberakinak lan etekin moduan tributatu du, eta prestazioak Gizarte Segurantzatik eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko mutualitate edo entitateetatik jaso direnean, soberakina azken horien prestazioetan gertatu dela ulertuko da.

Era berean, salbuetsita daude zahartasun eta **elbarritasunari buruzko derrigorrezko aseguruaren pentsioak (SOVI delakoarenak)**, euren zergatia zergadunaren elbarritasuna denean.



4. **Klase pasiboen erregimenean ezgaitasun edo ezintasun iraunkorragatik jasotako pentsioak**, baldin eta haien arrazoia izan den lesio edo gaixotasunak pentsioaren jasotzailea erabat ezgaitu badu edozein lanbidetan jarduteko, edo, bestela, baldin eta zergaduna 55 urtetik gorakoa izanik lesioak edozein lanbidetan jarduteko gaitu ez badu.

**ERNE:** Pentsio horiek 55 urtetik gorako pertsonak jasotzen badituzte, ez daude salbuetsita zergadunek jarduera ekonomikoen etekinak izan dituztenean edo Gizarte Segurantzatik, pentsio planetatik, aseguratutako aurreikuspen planetatik, borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetatik, edo aseguru kolektiboetatik datozen pentsio edo prestazioak ez diren bestelako lan etekinak jaso dituztenean. Ondorio horietarako, lehendik emandako zerbitzuengatik jasotako diruzko edo gauza bidezko ordainsari sinbolikoak ez dira lan etekintzat hartuko, urteko zenbatekoa 600 eurotik gorakoa ez bada. Dena den, prestazioak aldizka jasotzen direnean, baliaezintasunagatik jasotakoak beti daude salbuetsita jasotzen diren lehen zergaldian.

5. **Langilea kaleratu edo lana uzteagatik jasotzen diren kalte-ordainak**, Langileen Estatutuan, bere erregelamenduzko araudian nahiz, hala badagokio, sententziak betearazteko araudi erregulatuaren derri-gorrezko izaeraz ezarritako kopuruetaraino.

Ondorio horietarako, hurrengo hauek ez dira derrigorrezko izaeraz ezarritakotzat jotzen eta, beraz, Zergari lotuta daude eta oso-osorik aitortu beharko dira:

- Hitzarmen, itun edo kontratuen indarrez ezarritako kalte-ordainak.
- Oro har, lan kontratua amaitzeagatik jasotzen diren kalte-ordainak, baldin eta kontratua amaitutzat emateko aintzat hartu den zergatirako ez bada ez langileen estatutuan eta ez beraz garatzen duten arauetan kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik. Kasu horien artean ondoko hauek aipa daitezke:
  - Aldi baterako lan kontratuak amaitzea, epea bukatu zaielako.
  - Bidezkotzat jotzen diren kaleratze diziplinarioak.
  - Langileak bere borondatez lana uztea, horren zergatia Langileen Estatutuak 41. eta 50. artikuluetan aipatzen dituen artean ez badago.

Esan dugun bezala, langilea kaleratu edo lana uzteagatik jasotzen diren kalte-ordainak ez dira aitortu behar Langileen Estatutuan ezarritako mugak gainditzen ez dituztenean. Honako hauek dira, besteak beste:

- **Bidegabeko kaleratzeagatik jasotako kalte-ordainak:** jasotako kalte-ordainak salbuetsiko dira lan egindako urte bakoitzeko 33 eguneko soldata gainditzen ez duen kopururaino, 24 hileko gehienez. Dena den, 2012ko otsailaren 12a baino lehen formalizatutako kontratuen kasuan, bidegabeko kaleratzea deklaritzen bada, hau izango da kalte-ordaina: 45 eguneko soldata data hori baino lehen lanean emandako urte bakoitzeko, eta 33 eguneko soldata data horretatik aurrera lan egindako urte bakoitzeko. Kalte-ordainaren zenbatekoa ezin da 24 hilekoa baino handiagoa izan, non eta 2012ko otsailaren 12a baino lehenagoko aldiari dagokion kalte-ordaina kalkulatzeko ez diren 24 hileko baino gehiago ateratzen; kasu horretan 45 egun baino ez dira konputatuko, eta kalte-ordainaren zenbatekoa ezingo da izan 42 hilekoa baino handiagoa.

Kontratazio mugagabea sustatzeko kontratuen kasuan, horiek abenduaren 17ko 35/2010 Legearen babesean egindakoak direnean, bidegabeko kaleratzeagatik jasotako kalte-ordainetik 33 eguneko soldata salbuetsiko da lan egindako urte bakoitzeko, 24 hileko gehienez.

Lan egindako urteak kalkulatzeko, urtebetera iristen ez diren epealdiak hilabeteka hainbanatuko dira.

- **Langileak lana bere borondatez uzteagatik jasotako kalte-ordainak:** lan egindako urte bakoitzeko 33 eguneko soldatari dagokion kalte-ordaina salbuetsiko da, 24 hileko gehienez (2012ko otsailaren 12a arte 45 egun konputatuko dira, eta gehienez 42 hileko), betiere arrazoi hauetako batengatik utzi bada lana:
  - Lan baldintzak nabarmen aldatu direlako eta langilearen prestakuntza profesionala edo duintasuna kaltezen direlako.
  - Hitzarturiko soldata ordaintzen ez zaiolako edo ordainketa eten gabe atzeratzen delako.
  - Enpresariak kontratuan finkatua duen beste edozein obligazio betetzen ez duelako, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Lana uzten bada lan baldintzak nabarmen aldatu direlako baina langilearen prestakuntza profesionala edo duintasuna kaltetu gabe (txandakako lanaldi, ordutegi eta lan erregimena), jasotzen diren kalte-ordainak ez dira aitortenean sartuko beren zenbatekoak 20 eguneko soldata gainditzen ez duenean lan egindako urte bakoitzeko, gehienezko muga 9 hilekoa delarik.

Lan egindako urteak kalkulatzeko, urtebetera iristen ez diren epealdiak hilabeteka hainbanatuko dira.

- **Enpresariaren heriotza, erretiro edo ezintasunagatik lana utzi behar izan denean jasotako kalte-ordainak:** hilabeteko soldata.
- **Kaleratze kolektiboagatik jasotako kalte-ordainak:** Langileen Estatutuaren arabera, kaleratze kolektiboaren kasuan, kalte-ordaina 20 eguneko soldatako izango da lan egindako urte bakoitzeko, 12 hileko gehienez. Hala ere, kaleratzea enplegua erregulatzeko espedienteen ondorioz gertatu denean –Langileen Estatutuaren 51. artikulua arabera tramitatutako espedienteengatik eta agintari eskudunak alde aurretik onartuta–, edo haren arrazoiak aipatutako Estatutuaren 52.c) artikuluan aurreikusitakoak badira, betiere bai kasu batean bai bestean arrazoiak ekonomikoak, teknikoak, antolaketa-koak, produktzio-koak edo halabeharrezkoak badira, jasotako kalte-ordaina salbuetsita geratuko da Estatutu horretan bidegabeko kaleratzeetarako zehaztutako nahitaezko mugak gainditzen ez dituen zatian.

Herri administrazioek prestatzen dituzten giza baliabideen plan estrategikoen enplegua murrizteko espedienteen helburu berberak dituztenean, hauen tratamendu bera izango dute.

Lan egindako urteak kalkulatzeko, urtebetera iristen ez diren epealdiak hilabeteka hainbanatuko dira

- **Arrazoi objektiboetan oinarritutako kaleratzeengatik jasotako kalte-ordainak:** lan egindako urte bakoitzeko 20 eguneko soldata gainditzen ez duen kopururaino salbuetsiko da kalte-ordaina, gehienez 12 hileko.

Kaleratzea Langileen Estatutuko 52.c) artikuluan aurreikusitako arrazoiengatik gertatu bada –arrazoi ekonomikoengatik, teknikoengatik, halabeharrezkoengatik, antolakuntzazkoengatik edo produktzio arlokoengatik–, jasotako kalte-ordaina salbuetsita

geratuko da Estatu horretan bidegabeko kalera-tzeetarako ezarritako nahitaezko mugak gainditzen ez dituen zatian.

Lan egindako urteak kalkulatzeko, urtebetera iristen ez diren epealdiak hilabeteka hainbanatuko dira

Ekainaren 24ko 4/1993 Legeak, Euskadiko Kooperatibei buruzkoak, 103.2 artikuluan xedatutakoaren ondorioz, kooperatiba bateko bazkideek kooperatiba horretan baja hartzeagatik jaso ditzaketen kalte-ordainak ez dira aitortzen sartuko beren zenbatekoak ez badu gainditzen Langileen Estatutuak 52.c) artikuluan aipatzen dituen uzte kasuetarako lan araudiak derrigorrezko izaeraz ezartzen duen kopurua.

Langileak enpresarekiko lotura guztiak benetan eta efektiboki galtzen ez baditu, derrigorrez aitortu behar harko dituen kalte-ordain horiek. Kontrakoa frogatzen ez den bitartean, lotura mantentzen dela ulertuko da baldin eta:

- Enpresak langilea berriro kontratatzen badu kaleratua izan edo lana utzi ondorengo hiru urteetan, datatik data-tara kontatuak.
  - Langilea enpresa berberak edo Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauak 16. artikuluan dioenaren arabera hari lotuta dagoen beste batek kontratatzen badu. Lotura hori bazkidearen eta sozietatearen arteko harremanak definitzen duenean, beharrezkoa da partaidetza %25ekoa edo handiagoa izatea, edo bestela, %5ekoa edo handiagoa izatea, balore horiek Europako Parlamentuaren eta bertako Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauak, finantza tresnen merkaturerako buruzkoak, III. tituluan aipatzen dituen balore merkatu ofizialetako batean negoziatzeko onartu direnean.
- Zenbaki honetako GEHIENAKO KOPURU SALBUETSIA ezin da izan 180.000 euro baino handiagoa. Muga hori bakarra izango da langilearen kaleratze edo kargugabetze bakoitzeko, kalte-ordaina ordaintzeko era zeinahi dela ere. Kalte-ordainak 2014 baino lehenagoko kaleratzeagatik jasotzen badira, muga hori ez zaie aplikatuko.
6. Era berean, ez dira aitortu behar **pertsonen eragindako kalte fisiko, psikiko edo moralengatik ematen diren erantzukizun zibileko kalte-ordainak**, legez edo juridikoki onartzen den zenbatekoan.
  7. Pertsonen kalte fisiko, psikiko edo moralak eragiteagatik **aseguru kontratuetatik jasotzen diren diru kopuruak, 150.000,00 euroaraino**. Lesioak prestazioaren jasotzailea ezgaitzen badu edozein lanbide edo jardueratan aritzeko, kopuru hori **200.000,00** eurokoa izango da, eta gainera, jasotzaileak beste pertsona baten laguntza behar badu eguneroko eginbehar oinarritzkoetarako, orduan **300.000,00** eurokoa izango da muga.
  8. **Zenbait sari literario, zientifiko eta artistiko, nahiz giza eskubideen defentsa eta sustapenari lotutakoak**, Zerga Administrazioak zerga ordaintzetik salbuetsi dituenean.
  9. **Beka publikoak, irabazi asmorik gabeko entitateek emandakoak, eta Aurrezki kutxei eta banku fundazioei buruzko abenduaren 27ko 26/2013 Legeko II. tituluan arautzen diren banku fundazioek beren gizarte ekintzaren barruan emandako bekak, honako honetarako jaso badira:**

- **ikasketak egiteko**, dela Espainian dela atzerrian, hezkuntza sistemaren maila eta gradu guztietan, unibertsitateko hirugarren zikloraino (doktoretza).

- **ikerketak egiteko**,

- urtarrilaren 27ko 63/2006 Errege Dekretuak, iker-tzaile bekadunaren Estatutua onartzen duenak, definitzen duen alorrean.

- herri administrazioetako funtzionario eta gainerako langileek jasotzen dituztenean.

- unibertsitateetako irakasle eta ikertzaileek jasotzen dituztenean.

Irabazi asmorik gabeko entitateen kasuan, baina, haien beka salbuetsita daude irabazi asmorik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarrii buruzko araudia<sup>4</sup> aplikagarri zaienean.

**10. Pertsonak etxean hartzeagatik herri erakundeetatik jasotzen diren zenbatekoak.**

**11. 1936-1939 bitarteko gerra zibilean zauriak edo mutilazioak jasan zituztenen alde onartutako pentsioak**, dela Estatu Klase Pasiboen erregimenaren bitartez, dela berariaz egindako legeriaren babesean.

**12. 2015eko urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren testu bategina onartzen duenak, II. tituluko X. eta XV. kapituluetan eta VI. tituluko I. kapituluaren arautzen dituen familia prestazioak, eta Gizarte Segurantzaren eta klase pasiboen araubide publikoetatik jasotzen diren zurtasun pentsioak nahiz hartzeko pasiboak, eta hogeita bi urtetik beherako biloben eta anai-arreben alde edo lan orotarako desgaituen alde onartutakoak.**

Puntu honetan sartzen dira, baita ere, aurreko paragrafoan aipatutakoak bezalako egoerengatik jasotzen diren prestazioak, onuradunak hauek direnean:

- Norbere konturako langileen edo langile autonomoen Gizarte Segurantzaren erregimen berezian sartuta ez dauden profesionalak, Gizarte Segurantzaren erregimen bereziaren ordezkotza jarduten diren gizarte aurreikuspeneko mutualitateek onartutako prestazioak direnean.

- Kooperatibetako bazkideak, prestazioak borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateek onartutakoak direnean.

**ERNE:** kontuan eduki behar da kontzeptu honengatik aitortu behar ez den kopuruak ezin duela inoiz gainditu norbere konturako langileen edo langile autonomoen Gizarte Segurantzaren erregimen berezian sartuta ez dauden profesionalak edo bazkide kooperatibistek jasoko luketena pentsioa Gizarte Segurantzak ordainduko balie. Soberakinak lan etekin moduan tributatu du, eta prestazioak Gizarte Segurantzatik eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko mutualitate edo entitateetatik jaso direnean, soberakina azken horien prestazioetan gertatu dela ulertuko da.

- Baita ere, salbuetsita egongo dira, funtzionarioek beren zerbitzuengatik jasotzen dituzten ordainsariak, lanaldiaren murrizketarekin zer ikusia dutenean aurretik baimena eskatu dutelako minbiziak edo beste gaixotasun larri batek ukitutako seme-alaba adingabeak zaintzeko. Baimen hori 49. artikuluan e) letran aurreikusten du Enplegatu Publikoaren Oinarritzko

<sup>4</sup> Ikus II. tituluaren 7ko 3/2004 Foru Arauan, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarrii buruzkoan.

Estatutuaren Legearen tetsu bateginak, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuak. Salbuetsitako zenbatekoaren muga minbiziak edo beste gaixotasun larri batek jotako adingabeak zaintzeagatik Gizarte Segurantzak aitortzen duen gehieneko prestazioaren zenbatekoa izango da, hain zuzen ere Gizarte Segurantzako Lege Orokorren testu bateginaren II. tituluko X. kapituluaren aurreikusitakoa.

Salbuetsita daude, baita ere, **jaiotzagatik, erditze anitzzagatik, adopzioagatik, adopzio anitzzagatik, kargupeko seme-alabengatik eta zurztasunagatik jasotzen diren gainerako prestazio publikoak.**

**Amatasuna dela-eta autonomia erkidegoetatik edo toki erakundeetatik jasotzen diren prestazio publikoak** ere salbuetsita daude.

13. Dena delako entitate kudeatzaileak onartutako **langabezi prestazioak**, ekainaren 19ko 1044/1985 Errege Dekretuak ezarritako **ordainketa bakarrean** jasotzen direnean.

Beharkizunak:

- Jasotako kopuruak esandako errege dekretuak ezarritako helburuetara bideratzea eta bertan aipatzen diren kasuetan ematea.
- Akzioari edo partaidetzari 5 urtez eustea, onuraduna sozietate laboraletan edo lan elkartuko kooperatibetan sarturik badago; edo, bestela, 5 urtez aritzea jardueran, diru kopuruak jarduera hori langile autonomo gisa egiteko erabili badira. 5 urtez eustea akzioari edo partaidetzari ez da beharrezkoa izango ezin bazaio eutsi enpresa likidatu egin delako konkurtso prozedura baten ondorioz. Langile autonomoei ez zaie ezta exijituko epe hori betetzea araudian ezartzen diren galerak badituzte.

Era berean, salbuetsita egongo dira borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateek kooperatiba deseginetako bazkide langileei eta lan bazkideei onartutako behin betiko birkokapenagatik enpleguaren alde ematen diren diru laguntzak, baldin eta kooperatibak Gizarte Segurantzako erregimen berezira atxikita badaude eta laguntzak behin betiko birkokatzeak erabiltzen diren kooperatiben kapital sozialaren aldeko ekarpenak egitera zuzentzen badira.

Aurreko paragrafoan jasotako kasuetan, gehienez salbuetsita geldituko da estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak onartzen duen gehieneko prestazioaren zenbatekoa. Soberakina lan etekin moduan zergapetuko da.

14. Maiatzaren 28ko Errege Lege-Dekretuan eta ekainaren 5eko 14/2002 Legearen 2. artikuluan xedatutakoagatik jasotako **gizarte laguntzak**.
15. **Goi mailako kirolariei emandako laguntza ekonomikoak**, erakunde eskudunek antolatutako prestazio programen ondorio direnean. Urteko muga **60.100,00** eurokoa izango da, eta baldintza hauetako bat bete behar dute:
- Beren onuradunek goi mailako kirolari izaera aitortua edukitzea aplikagarria den legeriaren arabera.
  - Kirol gaitan eskudun diren erakundeek zuzenean edo zeharka ematea laguntza horiek.
16. **Nazioarteko bake misioak** betetzeagatik edo horietan kalte fisiko edo psikikoak jasateagatik jasotzen diren aparteko haborokinak eta prestazio publikoak. Hemen **nazioarteko giza laguntza misioak** ere sartzen dira.

17. **Atzerrian egindako lanengatik** jasotzen diren lan etekinak, **60.100,00 euroko mugarekin urtean**, honako baldintzak betetzen direnean:

- Lan horiek Espainian egoitzarik ez duen enpresa edo entitate batentzat egin behar dira edo, bestela, atzerrian finkaturik dagoen establezimendu iraunkor batentzat. Bereziki, gertatzen bada lanak hartu behar dituen entitateak lotura bat duela langilea enplegatu duen entitatearekin edo haren zerbitzuak jasotzen dituen enpresarekin, ulertuko da lan horiek entitate ez-egoiliarrentzat egin direla entitate ez-egoiliarriari talde barruko zerbitzua eman zaiola uste daitekeenean, Sozietateen gaineko Zergaren araudian jasotakoaren arabera<sup>5</sup>, aipatu zerbitzuak entitate hartzaileari abantaila edo erabilgarritasunen bat dakarkiolako edo ekar diezaiokeelako.
- Lanak egiten diren lurraldean zerga honen antzeko edo pareko zerga bat aplikatzea, eta herrialde edo lurralde hori paradisu fiskaltzat kalifikatuta ez egotea. Baldintza hori betetzen dela ulertuko da lanak egiten diren herrialde edo lurraldeak nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmena sinatua duenean Espainiarekin eta hitzarmen horretan informazioa elkarri trukatzeko klausula jasotzen denean.

Atzerrian egindako lanengatik jasotako ordainsaria kalkulatzeko, langileak atzerrian benetan eman dituen egun kopurua hartuko da kontuan, bai eta atzerrian emandako zerbitzuei dagozkien berariazko ordainsariak ere.

Zergadunak, aukera hau edo soberakinen aukera autolikidazioa aurkezteko orduan hautatu beharko du.

Atzerrian destinaturik dauden zergadunentzat, salbuespen hori bateraezina da tributaziotik kanpo gertatzen diren soberakinen araubidearekin<sup>6</sup>, zenbatekoa edozein dela ere. Zergadunak salbuespen honen ordezkian soberakinen araubidea aplikatzea aukera dezake.

Langileak atzerriara aldatzeak bera enplegatu duen enpresak edo entitateak nazioz gaindiko zerbitzu prestazio bat egiteagatik gertatu behar du. Enpresa edo entitate horrek Espainian eduki behar du egoitza.

Salbuespen hau ez zaie mugaldeko langileei aplikatuko.

18. Errenta positiboak ez dira aitortuko honako hauetatik datozenean:
- **Europako Batasunak nekazaritzari emandako laguntzetatik**, helburua hauxe bada:
    - Esne produkzioa behin betiko uztea.
    - Mahasti, madari, mertxika edo nektarina produkzioa behin betiko uztea.
    - Platanondo, madariondo, sagarrondo, mertxikondo eta nektarinondoak erazteak.
    - Azukre-erremolatxaren eta azukre-kanaberaren laboria behin betiko uztea.
  - **Europako Batasunak arrantzari emandako laguntzetatik**, helburua hauxe bada:
    - Arrantza behin betiko uztea.
    - Itsasontzi batek arrantzan ez jarraitzea.

5 Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 16.5 artikulua.

6 Araubide hori jasota dago Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua Foru Dekretuaren. Ikus 2. kapituluaren barruan, "Lanaren etekinak" izenekoan, ageri den 2.2.1.3 apartatua.

- Itsasontzi bat eskualdatzea, beste herrialde batean sozietate mistoak sortu nahi direlako edo horren ondorioz.
- **Arrantzuntziaren salmentatik**, baldin eta erosleak, saldu denetik urtebeteko epean, hondakin bihurtzen badu ontzia eta arrantza uzteagatik dagokion laguntza jasotzen badu.
- Sute, uholde edo hondoratzeengatik **ondare elementuetan izandako suntsipena konpontzeko laguntza publikoak**.
- **Errepide bidezko garraio jarduera uzteko emandako laguntzetatik**, administrazio eskudunak garraio-lariei ordaindu dizkienean laguntza horiek emateko araudian ezarritako baldintzak betetzeagatik.
- **Abere azienda derrigorrez hiltzeagatik jasotako kalte-ordain publikoetatik**, epidemiak edo gaixotasunak desagertarazteko ematen direnean eta ugalketarako abereei eragiten dietenean.
- **Nekazaritza Bermatzeko** Europako Funtsetik (FEAGA), Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsetik (LGENF), Europako Arrantza Funtsetik (EAF) edo horien ordezkotako xede bereko funtsetatik datozen laguntzak.

Hau da, honako errentak ez dira aitortuko:

- Jasotako laguntzen zenbatekoa.
- Arrantzontzia saltzen bada, lortu diren ondare irabaziak. Ondare galerak egon badira, oinarri ezargarri orokorrean sar daitezke.
- Ondare elementuen suntsipena konpontzeko jasotzen diren laguntzen zenbatekoa elementu horietan eragindako galerak baino txikiagoa denean, diferentzia negatiboa zerga oinarrian sartu ahal izango da. Galerarik ez badago, laguntzen zenbatekoa bakarrik geldituko da aitortuenera.

Jasotzen diren laguntza publikoak ez badira zenbaki honetan aipatutakoak, eta haien helburua ondare elementuek sute, uholde, hondorapen edo bestelako arrazoi naturalengatik jasandako kalteak konpontzea bada, konponketa kostua gainditzen duten zatiagatik sartuko dira zerga oinarrian. Konponketa gastuak, laguntza horren zenbatekoraino, ez dira inoiz ere kengarriak izango eta ez dira hobekuntza gisa konputatuko.

Laguntza publikoak jasotzen badira zergadunaren ohiko etxebizitza edo jarduera ekonomikoaren lokala aldi baterako edo behin betiko utzi beharra konpentsatzeko, eta horiek jasotzeko arrazoiak aurreko berberak badira, laguntza horiek salbuetsita egongo dira.

19. **Mendiko finkak** ustiatzen dituztenei emandako dirulaguntzak ez dira aitortuenean sartuko haien kudeaketarako honako plan hauek jarraitu badira:
  - Basoak kudeatzeko plan teknikoak.
  - Mendiak antolatzeako planak.
  - Plan dasokratikoak.
  - Basoberritze planak.

Baldintzak:

- Ustiapenak administrazio eskudunak onartzea.
- Batez besteko produkzioaldia hogeita hamar urtekoa edo handiagoa izatea.

20. **Epaimahaiko izangaiek eta epaimahaikide titularrek eta hauen ordezkoez** beren eginkizunak betetzeko jasotako dirulaguntzak.
21. Zerbitzu publikoen funtzionamenduak pertsonengan eragindako kalte fisiko, psikiko edo moralengatik **herri administrazioek emandako kalte-ordainak**, beti ere martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuak, Herri Administrazioen prozedurei buruzko Erregelamendua erantzukizun patrimonialari dagokionez onartzeakoak, hala jasotzen baditu.
22. **Lurperatze edo ehorzketagatik** jasotako prestazioak, izandako gastu guztien zenbatekoraino.
23. Biziarteko errenta aseguratutako eratzeko unean agerian jartzen diren errentak, **aurrezpen sistematikoko banakako planetatik datozenen**.
24. **Dibidenduak eta mozkin-partaidetzak Urteko muga 1.500,00 euro da** zergadun bakoitzeko. Familia unitateak batera aitortzen duenean, salbuespenak muga hori bera du (1.500,00 euro), eta kopuru hori ezin da biderkatu familia unitatean dibidenduak jasotzen dituzten kide kopuruarekin.

Salbuespen hau ez zaie aplikatuko inbertsio kolektiboko erakundeek banatutako dibidendu eta mozkin-partaidetzei eta etekinak ordaindu aurreko lehen bi hilabeteetan eskuratutako balore edo partaidetzetatik datozei, baldin eta data horren ondoren, baina epe berberaren barruan, balore homogeneoak eskualdatu badira. Baloreak edo partaidetzak ez badira negoziagarriak bigarren mailako balore merkatu ofizialetan, epea urtebetekoa izango da.

Era berean, salbuespen hau ez zaio aplikatuko kooperatibek ekarpenak direla-eta bazkideei ordaindutako interesari.

25. Pertsona desgaituek errenta moduan jasotako prestazioetatik eratortzen diren **lan etekinak**, betiere pertsona desgaituen alde eraturako gizarte aurreikuspeneko sistemetan egindako ekarpenei badagozkie. Lanbidearteko gutxieneko soldata hiru halako izango da muga.
26. Senitartekoen **zaintzarako eta laguntza pertsonalizaturako ematen diren prestazio ekonomiko publikoak**, betiere autonomia pertsonala sustatzeko eta besteren beharra duten pertsonak zaintzeko legearen ondorio badira.

Era berean, zergatik salbuetsita dago zaintzaile ez-profesionalak autonomia pertsonala sustatzeko eta besteren beharra duten pertsonak zaintzeko Legearen 14. artikulua 4. apartatuan inguru familiarreko zaintzetarako jasotako prestazio ekonomikoaren onuraduna den mendeko pertsonari emandako arreta dela-eta jasotzen duen ordainsaria, aipatu onuradunari aitortutako prestazio ekonomikoaren zenbatekoraino gehienez.

Aurreko paragrafoan jasotako salbuespenaren ondorioetarako, mendeko pertsonaren zaintzaile ez-profesionaltzat hartuko da ezkontidea, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izateko bikoite-laguna, edo odolkidetasun, ezkontza edo adopzio bidezko senidea, hirugarren mailarainokoa, berau barne.

27. **Lurralde mailako herri administrazioek** emandako laguntzak, beren testu arautzaileak honako hauek edo beren ordezkoez direnean:

- 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa.
  - Eusko Jaurlaritzaren 124/2005 Dekretua, maiatzaren 31koa, euskal kooperatzaileei Garapenerako Lankidetzaren eta Laguntza Funtzaren kargura emango zaizkien laguntzak arautzen dituenak.
  - Eusko Jaurlaritzaren 255/2006 Dekretua, abenduaren 19koa, seme-alabak dituzten familientzako diru laguntzak arautzen dituenak.
  - Eusko Jaurlaritzaren 177/2010 Dekretua, ekainaren 29koa, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa.
  - Eusko Jaurlaritzaren Agindua, 2010eko urriaren 6koa, Etxebizitza, Herrilan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza erosteko finantza neurriei buruzkoa.
  - Eusko Jaurlaritzaren Agindua, 2006ko abenduaren 29ko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, etxebizitza birgaitzeko finantza neurriei buruzkoa.
  - 58/1989 Foru Dekretua, abenduaren 5koa, etxez etxeko zerbitzu intentsiboa arautzen duena.
  - 33/2004 Foru Dekretua, apirilaren 20koa, egoera zailan dauden haurren babesa, garapen pertsonala eta integrazio soziala errazteko diru laguntzei buruzkoa.
  - 89/2008 Foru Dekretua, abenduaren 23koa, mendetasun egoeran daudenen familia harreraren programa eta hura garatzeko behar diren diru laguntzak arautzen dituenak.
  - 35/1999 Foru Dekretua, martxoaren 23koa, adingabeen babesa, garapen pertsonala eta integrazio soziala errazteko diru laguntzei eta gizarte arriskuan dauden pertsona edo familienei buruzkoa.
  - 87/2008 Foru Dekretua, abenduaren 23koa, desgaitasuna edo mendetasuna duten pertsonen zuzendutako Etxean programako banakako laguntzak arautzen dituenak. Aurrekoen pareko laguntza guztiak, beste lurralde historikoen salbuetsiztat jo dituztenean.
  - 03-086/2013 Foru Agindua, abenduaren 27koa, etorkizuneko kirolariak izendatzeko araudia onartzen duena.
  - Ibilgailuen parkea berritzeko onartutako 2000 E eta MOTO E planak, 2000 Euskadi Plana, eta beste autonomia erkidegoek helburu berberarekin ezartzen dituztenak edo xede horrekin haien ordezkari direnak.
  - Euskadi 09' Plana, leihoak, etxe tresnak, galdarak, aurrezpen energetiko handiko turismoak eta altzariak berritzeko Renove Planei dagokienez, eta, era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko etxe bizitzaren eta eraikinen birgaitze eraginkorraren alorreko Renove Plana, bai eta xede berarekin haien ordezkari direnak ere.
  - Lurralde mailako herri administrazioek ematen dituzten bestelako laguntza publikoak, haien xedea ondasunak zein instalazioak berritzen laguntzea bada.
  - 31/2012 Foru Dekretua, ekainaren 19koa, Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntza ezartzen duena.
  - ZenN proiektua (energia kontsumo ia deuseza duten auzoak), Europar Batasunaren Ikerketako Zazpigarren Programa Esparruan oinarritua.
  - Era berean, salbuetsita daude beste lurralde historikoen salbuetsiztat hartutako antzeko laguntzak.
28. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren organo eskudunak baimendutako **behi esnearen erreferentziako kopuruaren transferentziak** direla-eta agerian jartzen diren errenta positiboak.
29. Amnistiaren urriaren 15eko 46/1977 Legeak jasotako kasuen ondorioz **espetxeetako askatasun gabetzea konpentsatzeko** estatuko edo autonomia erkidegoetako legerian jasota dauden **kalte-ordainak**, eta baita ere gerra zibilean eta diktaduran jazarpenera edo indarkeria jasan zutenen eskubideak aitortu eta handitzen dituen eta haien aldeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 26ko 52/2007 Legean aurreikusitakoak.
30. Askatasuna eta eskubide demokratikoak defendatuz eta aldarrikatuz heriotza edo lesio ezgaitzaileak pairatzeagatik jasotzen diren **kalte-ordainak**, abenduaren 26ko 52/2007 Legean aurreikusitakoak. Lege horren bidez, gerra zibilean eta diktaduran jazarpenera edo indarkeria pairatu zutenen eskubideak aitortzen eta zabaltzen dira, eta haien aldeko neurriak ezartzen dira.
- Orobat, salbuetsita egongo da Bigarren Mundu Gerran basakeriak pairatu zituztenen umezurtzen sufrimenduari aitortzen gisa ematen den laguntza finantzarioa, Frantziako Errepublikako Gobernuak uztailearen 27ko 2004/751 Dekretuan aitortua.
31. Ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuan —Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortu eta biktima horiei ordainak ematekoan— aurreikusita dauden konpentsazio ekonomikoak.
32. Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikotik eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuaren azaroaren 29ko Agindutik —lehen aipatutako abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoko 27. artikuluan aurreikusitako genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei dirulaguntza emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzen duena— eratorritako laguntzak. Era berean, abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren xede bera duten lurraldeetako herri administrazioen laguntzak ere salbuetsita egongo dira.
33. **Kuotan kenkaridunak diren dohaintza eta ekarpenetatik** datozen ondare irabaziak eta errenta positiboak, baldin eta irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko Foru Arauan<sup>7</sup> aipatutako entitateei eginak izan badira.
34. **65 urtetik gorako pertsonen (400.000 euroko mugarekin) edo**, autonomia pertsonala sustatzeko eta besteren beharra duten pertsonak zaintzeko legegaren arabera, **mendekotasun ertaina edo handia duten pertsonen, ohiko etxebizitza saltzeagatik** agerian jartzen diren ondare irabaziak.
35. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga **Euskal Kultur Ondarea eta Espainiako Ondare Historikoa osatzen duten ondasunen bitartez ordaintzean** sortzen diren ondare irabaziak, lege ezarritako baldintzekin.
36. Zordunaren edo haren bermatzailearen ohiko etxebizitza ordainean emateagatik izandako ondare irabaziak, baldin eta ordainean emate hori egiten bada hipotekaz bermatuta dauden zorrak, kreditu-entitateekin edo modu profesionalean maileguak zein hipoteka-kredituak ematen dituen beste edozein entitatearekin hartu-

<sup>7</sup> Ikus 19. artikulua apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauan, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzkoan.



takoak, kitatzeko. Orobat, salbuetsita egongo dira **hipoteka-exekuzio judizial edo notarialen** ondorioz lortutakoak.

Ezinbesteko baldintza izango da, beti, ohiko etxebizitzaren jabeak ez izatea behar besteko beste ondasun edo eskubiderik zorra bere osoan ordaintzeko eta etxebizitza besterentzea saihesteko.

37. **Ohiko etxebizitza eskualdatzeagatik** lortzen diren ondare irabaziak, baldin eta eskualdaketa lortu den zenbateko osoa **beste ohiko etxebizitza bat erosteko berrinbertitzen bada**. Lortutako zenbatekoaren zati bat bakarrik berrinbertitzen bada, ondare irabaziarren zati proportzionala ez da aitortu behar.
38. **Bidai gastuak eta ostalaritza establezimenduetako mantenu eta egonaldi gastu arruntak**, erregelamenduz ezartzen diren mugekin<sup>8</sup>.
39. **Gipuzkoako Foru Aldundiak baimendutako eskola kiroleko programa** edo eskola adineko kirolarientzako jarduerak egitean edo lurraldeko kirol federazioen jarduerak egitean begirale, arbitro, epaile, ordezkari, kirol arduradun, federazio zuzendari tekniko edo entrenatzaile eginkizunak betetzeagatik jasotako etekinak, betiere lanbide arteko gutxieneko soldataren mugapean. Kopuru hori baino gehiago jasotzen bada, kopuru osoa zergari lotuta egongo da eta aitortu beharko da.
40. **Epe luzerako aurrezki planak eratzeko erabiltzen diren bizi aseguru, gordailu eta finantza kontratuetatik datozen kapital higigarriaren etekin positiboak**, baldin eta zergadunak ez badu plan horretako kapitala erabiltzen hura irekitzen denetik bost urte igaro baino lehen.

Epe hori amaitu baino lehen erabiltzen bada kapitalen bat edo betetzen ez bada foru arau honetako hogeita hamalagarren xedean gehigarrian zehaztutako betekizunetako edozein, aurreko paragrafoan aipatzen diren etekinak, plana indarrean egon den bitartean sortuak, ez-betetzea gertatzen den ekitaldiko zergaldian hartu behar dira kontuan.

- Zergadun bat, aldi berean, epe luzerako aurrezki plan baten titular soilik izan daiteke.
- Epe luzerako aurrezki plan batean ezin dira inoiz 5.000 euro baino gehiago jarri urtean, plana indarrean dagoen urte guztietan.
- Zergadunak kapital moduan bakarrik erabil dezake planean metatutako kapitala, osorik, eta ezin du planeko dirua zatika erabili.
- Erregelamendu bidez garatu ahal izango dira epe luzerako aurrezkiarako aseguru indibidualen etekinak edo epe luzerako aurrezkiarako kontu indibidualen metatutako funts guztiak mobilizatzeko baldintzak, baina horrek ez du esan nahi baliabideak erabiliko direnik foru arau honetako 9 artikuluko 34. apartatuan ezarritakoari begira.
- Aseguru entitateak edo kreditu entitateak bermatu behar du zergadunak, bizi aseguru indibiduala mugaeguneratzen denean edo finantza gordailu edo kontratu bakoitza mugaeguneratzen denean, gutxienez, ordaindutako primen edo finantza gordailu edo kontratuari egindako ekarpenen 100eko 85aren baliokidea den kapitala jasoko duela.

8 Ikus 2. kapituluaren barruan, "Lanaren etekinak" izenekoan, ageri den 2.2 apartatua. Lokomozio gastuetarako eta mantenu eta egonaldi gastuetarako dietak eta diru ordainketak azaltzen dira bertan.

- Epe luzerako aurrezkiarako plana indarrean dagoen urteetan lortzen diren kapital higigarriaren etekin negatiboak –plana iraungitzeak sor litzakeen etekinak barne– plana iraungitzen den zergaldian egotziko dira, baina bakarrik egotziko dira salbuespena aplikatu zaien plan horretako etekin negatiboaren batura gainditzen duten etekin negatiboak.

Ondoko errentak ez daude zergari lotuta eta, beraz, **ez dago horiek aitortzeko obligaziorik**:

- Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari lotutako errentak.
- Abenduaren 7ko 1618/2007 Errege Dekretuak, Elikagaien Ordainketa Bermatzeko Fondoaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoak, Elikagaien Ordainketa Bermatzeko arautzen duen Fondotik jasotako kopuruak.
- Jarduera ekonomikoen garapenari atxikita ez dauden ondare elementuak eskualdatzeagatik sortzen diren ondare irabaziak. 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen sortu den irabaziaren zatia ez da zergape-tuta egongo 1994ko abenduaren 31 baino lehen eskuratutako ondare elementuetatik baldin badator<sup>9</sup>.
- Hil diren pertsonen ondarean herentzia baten eskualdatzeagatik agerian jartzen diren ondare irabazi edo galerak.
- Zergaduna hiltzeagatik aktibo finantzarioen doako eskualdaketa agerian jartzen diren kapital higigarriaren etekinak.
- Kapitalaren murrizpenak, betiere haien helburua ekarpenak itzultzea ez bada. Halakorik egonez gero, eragindako baloreen eskuratze balioaren gainean dagoen soberakinak kapital higigarriaren etekin moduan tributatuak du<sup>10</sup>.
- Enpresak edo partaidetzak kosturik gabe eskualdatzearen ondorioz sortzen diren irabazi edo galerak, Aberastasunaren gaineko Zergari buruzko foru arauak 6bis artikuluan aipatuak<sup>11</sup>.
- Ondasun banaketaren ezkontza erregimen ekonomikoa edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak, izatezko bikoteei buruzkoak, xedatutakoaren arabera hartzatutako ondare erregimen ekonomikoa desegitean egiten diren ondasun edo eskubideen esleipenak, badin eta esleipen horiek legearen aginduz edo epaileen erabakiz gertatzen badira eta horien zioak ezkontideen edo izatezko bikoteen kideen arteko pensio konpentsagarriekin zer ikusirik ez badu. Horrek ez du ekarriko, inolaz ere, esleitutako ondasun edo eskubideen balioak eguneratzea.
- Autonomia pertsonala sustatzeko eta besteren beharra duten pertsonak zaintzeko Legearen 26. artikuluan aipatzen den mendetasun ertain edo handiko egoeran dauden pertsonen ohiko etxebizitza xedatzeagatik lortutako ondare irabaziak, baldin eta zahartzaroak eta mendetasunak dakartzaten diru beharriari erantzuteko ondare pertsonala osatzen duten ondasunak xedatzeko egintzei buruzko finantza araudiari jarraituz egiten badira.

9 Ikus 6.1.2.1 apartatua 6. kapituluaren barruan, "Ondare irabazi eta galerak" izenekoan. Bertan azaltzen da zer gertatzen den kapitala murrizten denean.

10 Ikus 6.1.2.1 apartatua 6. kapituluaren barruan, "Ondare irabazi eta galerak" izenekoan. Bertan azaltzen da zer gertatzen den kapitala murrizten denean.

11 Ikus 6. kapituluaren barruan, "Ondare irabazi eta galerak" izenekoan, ageri diren 6.1.2.3 eta 6.1.2.4 apartatuak.

## 1.8 Banaka tributatzea eta batera tributatzea

Bi tributazio mota daude: **banakakoa eta baterakoa**.

### 1.8.1 Banakako tributazioa

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena banaka aurkezten da oro har.

### 1.8.2 Baterako tributazioa

Familia unitate batean sartuta dauden pertsona fisikoek edozein zergalditan tributa dezakete batera, beti ere familiako kide guztiak zerga honen zergadunak badira.

Baterako aitortpena aurkeztu ahal izateko, familia unitateko **kide guztiak** modalitate hau aukeratu behar dute. Nahikoa da kideetako batek baterako tributazioaren arauak ez aplikatzea edo banakako aitortpena aurkeztea familia unitateko beste kideek banakako aitortpena aurkeztu behar izan dezaten.

Urtean zehar familia unitateko kideren bat hiltzen bada, familia unitateko gainerako kideek baterako aitortpena aurkeztu ahal izango dute, aitortpen horretan hildakoaren errentak sartuz. Gainera, hil den familia unitateko kideak kenkari pertsonal eta familiarretarako eskubidea sortu badu, aitortpenean kenkari horiek ere sartu ahal izango dituzte, beren zenbatekoa egun horretara arte proportzionalki murriztu gabe. Kasu horretan, batera tributatzeagatik zilegi den murrizpena urte osoagatik aplikatuko da.

Familia unitatea osatzen duten zergadunek lurralde desberdinetan dutenean beren ohiko egoitza, eta batera aitortzea aukeratzen badute, zerga Gipuzkoako Foru Aldundian ordainduko dute familia unitate horretan oinarri likidagarri handiena duen kideak Gipuzkoan duenean bere ohiko egoitza, zerga indibidualizatzeo arauari jarraiki.

Oinarri likidagarri handiena kalkulatzearen ondorioetarako, bizilekua Gipuzkoan ez duten zergadunei propio dagoen araudia aplikatuko zaie.

Zergaldi baterako egindako aukera aldatu baterako edo banakako egin daiteke gerora, zerga autolikidatzeko borondatezko epea bukatu arte.

Baterako tributazioa aukeratzeak ez du esan nahi hurrengo urteetan beste tributazio mota bat aukeratu ezin daitekeenik eta banaka aitortu.

Zergadunek aitortpena aurkeztu ez badute, **Administrazioak banaka tributatzen dutela ulertuko du**.

**OHARRA:** Legezko banantzea gertatu eta gero edo erabaki judizial batek gurasoen arteko loturarik ez dagoela adierazi eta gero gurasoek elkarrekin bizitzen jarraitzen badute, ezingo dute batera tributatzea aukeratu.

### Arau bereziak

Baterako tributazioan, zergadunen errentak kalkulatzeko, zerga oinarri eta oinarri likidagarria kalkulatzeko eta zerga zorra kalkulatzeko, banakako tributazioan ezarrita dauden erregela orokorrak aplikatuko dira, jarraian adierazten diren berezitasunekin:

- a) Baterako tributazioan, banakako tributazioan ezarrita dauden zenbateko eta muga berdina aplikatuko dira, hau da, ezingo dira familia unitateko kide kopuruaren arabera handitu edo biderkatu. Hala ere:
  - Familia unitatean kide batek baino gehiagok jasotzen dituztenean lan etekinak, etekin horiek hobaria aplikatzeo familia unitatean jaso diren mota honetako etekin guztien batura hartuko da kontuan, ez jasotzaile kopurua.

- Baterak tributatzen denean, jarduera ekonomikoaren saldo negatiboak, aurrezpenaren zerga oinarriaren saldo negatiboak, ondare galerak eta oinarri likidagarri orokor negatiboak zerga honen erregela orokorrean arabera konpentsa ditzakete familia unitateko kide diren zergadunek. Baldintza hau bete behar da: saldo, galera eta oinarri horiek familia unitateko kideek banaka tributatu duten zergaldietan gertatuak izatea eta konpentsatu gabe egotea.

Banakako tributazioa geroago egiten bada, adierazi diren kontzeptu horiek zein zergadunek konpentsa ditzaketen zehazteko, Zergaren araudian errenten indibidualizazioari buruz jasota dauden arauak jarraituko zaie.

- Familia unitateko kide bakoitzak –partaide, mutualista, aseguratuta edo bazkide izan– indibidualki aplikatuko ditu mutualitateei, aurreikuspen plan aseguratuei, pensio planei, 2003/41/CE Zuzentarauan erregulatutako pensio planei, borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateei, pertsona desgaituen aldeko aurreikuspen sistemei eta kirolari profesionalen mutualitateei ekarpenak egiteagatik zerga oinarrian egin dezakeen murrizpenaren gehieneko mugak. Gainera, zerga oinarriari murrizpenak aplikatzeak ezin duenez oinarri likidagarri orokor negatiborik ekarri, ez eta hura gehitu ere, kontuan hartuko da zenbateko proportzio duen zergadun bakoitzak zerga oinarrian. Aurrezpenaren oinarri likidagarria lortzeko, aurrezpenaren zerga oinarriari pensio konpentsagarriengatik eta urteko mantenturako ordaintzetengatik egindako murrizpenaren gerakina kendu behar zaio, halakorik badago. Oinarria ezin da, kenketa horretatik, negatiboa izan.
- Adinaren kenkaria kenkari honetarako exijitzen den adina betetzen duen zergadun bakoitzagatik aplikatuko da.
- Zergadun bakoitzak, 2013ko abenduaren 31 baino lehen ohiko etxebizitza erosteagatik zergaldi jarraituetan egindako kenkariaren baturak ezin du 36.000,00 euroko zifra gainditu. Hala badagokio, zifra horri gutxituko zaio berrinbertsioagatik salbuesitako ondare irabaziaren zenbatekoari %18 aplikatuz ateratzen den emaitza. 36.000,00 euroko kopurua zergadun bakoitzeko aplikatuko da. Dena den, ohiko etxebizitza erosteagatik urtean egin daitekeen gehieneko kenkariak ezin du gainditu 1.530 euroko kopurua aitortpen bakoitzeko. Familia ugarien titularrek edo 30 urtetik beherakoek handiagoa dute muga hori (1.955 euro). Muga horiek bikoiztuko dira aitortpena batera eginez gero.

Hala ere, 2011ko abenduaren 31 baino lehenago erositako etxebizitzentzat, urtean egin daitekeen gehieneko kenkariak ezin du gainditu 2.160 euroko kopurua aitortpen bakoitzeko. Familia ugarien titularrek edo 35 urtetik beherakoek handiagoa dute muga hori (2.760 euro). Limite horiek autolikidazio bakoitzeko izango dira.

- Langileen sindikatuei kuotak ordaintzeagatik araututako kenkaria, langileen sindikatuei kuotak ordaintzen dizkien zergadun bakoitzeko aplikatuko da.
- b) Familia unitateko zergadunek baterako tributazioa aukeratu badute, lortu dituzten mota guztietako errentak elkarrekin zergapetuko dira.
- c) Baterak tributatzea aukeratzen bada, zerga oinarri orokorrak 4.218,00 euroko murrizpena izango du urtean aitortpen bakoitzeko. Familia unitatea gurasoetako batek eta adingabeko seme-alabek edota judizialki ezgaituak diren seme-alaba adindunek, guraso-aginte

luzatu edo birgaitupean daudenek, osatzen badute, murrizpen hori 3.665,00 eurokoa izango da ezkontideak legez banandu direnean, ezkontza-loturarik ez dagoenean edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikoterik sortu ez denean.

- d) Familia unitateko kideek batera tributatzeari aukeratzeko badute, elkarrekin eta solidarioki geratuko dira zergari lotuta, eta zerga Administrazioak horietako edozeinengana jo ahal izango du zorra ordain dezan. Dena den, euren artean erabaki dezakete zein zenbateko ordainduko dioten proportzionalki Administrazioari, bakoitzari dagokion errenta zatiaren arabera.
- e) Aitorpena familia unitateko kide adindun guztiek izenpetu eta aurkeztu behar dute. Pertsona horiek adingabekoen ordeztu ahal izango dira, martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 45.1 artikuluan jasotako eran.

**ERNE:** Batera tributatzeari aukeratzeko bada, zerga oinarri orokorrek 4.218,00 euroko murrizpena izango du urtean aitorpen bakoitzeko 3.665,00 euroko murrizpena izango dute ezkontideak legez banandu direnean, ezkontza-loturarik ez dagoenean edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikoterik sortu ez denean.

## 1.9 Zergaldia eta zergaren sortzapena

### Zergaldia

Izaera orokorrean, zergaldia urte naturala da, hau da, **urtarrilaren 1ean hasi eta abenduaren 31n amaitzen da.**

Hala ere, zergaldia abenduaren 31 baino lehen hiltzen bada, zergaldia urtarriaren 1etik heriotzaren egunera arte joango da, eta egun horretan izango da zergaren sortzapena.

Urtean zehar familia unitateko kideren bat hiltzen bada, gainerako kideek batera tributatzeari aukera dezakete. Aitorpen horretan hildakoaren errentak sartu ditzakete eta, gainera, hil den familia unitateko kideak kenkari pertsonal eta familiarretarako eskubidea sortu badu, aitorpenean kenkari horiek ere sartu ahal izango dituzte, beren zenbatekoa egun horretara arte proportzionalki murriztu gabe. Kasu horretan, batera tributatzeari zilegi den murrizpena urte osoagatik aplikatuko da.

### Zergaren sortzapena

Izaera orokorrean, zergaren sortzapena urte bakoitzeko **abenduaren 31n** gertatzen da. Urtean zehar familia unitateko kideren bat hiltzen bada eta gainerako kideek hildakoaren errentak sartzen ez badituzte baterako tributazioa aukeratzeko ez dutelako, zergaren sortzapena zergaduna hil den egunean gertatzen da.

### Adibidea

Eman dezagun zergadun baten ezkontidea 2017ko urriaren 31n hil dela. Zergadunak 10 urteko seme bat du. 2017ko datuak ondorengo hauek dira:

Lana	Zergaduna	Hildako ezkontidea
Sarrera gordinak	37.262,75 €	33.055,67 €
Gizarte Segurantzza	2.253,80 €	1.502,53 €
Atxikipenak	6.467,76 €	6.091,69 €

Gainera, zergadunak lokal bat dauka errentan emana 2017ko abuztuaren 1az geroztik, eta honako kapital higiezin hau lortu du:

Kapital higiezina	Zergaduna	Hildako ezkontidea
Sarrera gordinak	6.000,00 €	
Gastu kengarriak	1.800,00 €	
Atxikipenak	1.260,00 €	

Hiru aukera daude:

1. Familia unitateko kideek banaka aitorzea.
2. Familia unitateko kideek batera aitorzea eta aitorpenean hildakoaren errentak sartzea.
3. Hildakoagatik banakako aitorpena aurkeztea eta familia unitateko gainerako kideek batera aitorzea.

### 1. Banakako tributazioa

Bi banakako aitorpen aurkezteko: zergadunarena, urte osoagatik aurkeztuko dena, eta ezkontidearena, heriotzaren egunera arte egingo dena (2017/01/01etik 2017/10/31ra arte).

Banakako tributazioa	Zergaduna	Hildako ezkontidea
Lanaren etekin osoak (ikus 2.4)	37.262,75 €	33.055,67 €
- Gizarte Segurantzza (ikus 2.5)	-2.253,80 €	-1.502,53 €
- Hobaria (ikus 2.6)	-3.000,00 €	-3.000,00 €
<b>Lanaren etekin garbia</b>	<b>32.008,95 €</b>	<b>28.553,14 €</b>
Kapital higiezinaren etekin osoa (ikus 3.2)	6.000,00 €	
- Gastu kengarriak (ikus 3.3)	-1.800,00 €	
<b>Kapital higiezinaren etekin garbia</b>	<b>4.200,00 €</b>	
<b>Oinarri likidagarri orokorra (ikus 10.2)</b>	<b>36.216,03 €</b>	<b>28.553,14 €</b>
<b>Haserako Kuota osoa (ikus 11)</b>	<b>9.718,63 €</b>	<b>7.217,38 €</b>
Kuota txikitzea	-1.389,00 €	-1.389,00 €
Kuota osoa	8.329,63 €	5.828,38 €
Kenkaria ondoren ahaideagatik (ikus 12.3.1)	-292,50 €	-292,50 €
<b>Kuota likidoa (ikus 12)</b>	<b>8.037,13 €</b>	<b>5.535,88 €</b>
- Lanaren atxikipenak eta higiezinarenak	7.727,76 €	6.091,69 €
<b>Kuota diferentziala (ikus 13)</b>	<b>309,37 €</b>	<b>-555,81 €</b>

### 2. Baterako tributazioa

Bigarren aukera honen arabera, zergadunak semearekin batera egin dezake aitorpena, eta bertan ondoko kontzeptu hauek sartu: ezkontidearen errentak eta, baldin badaude, familia unitatean hil den pertsonagatik aplikatu litezkeen kenkari pertsonal eta familiarrenak, beti ere kenkari horien zenbatekoa egun horretara arte proportzionalki murriztu gabe. Batera tributatzeari zilegi den murrizpena urte osoagatik aplikatuko da.

Baterako tributazioa	
Lanaren etekin osoa (37.262,75 € + 33.055,67 €) (ikus 2.4)	70.318,42 €
- Gizarte Segurantzza (2.253,80 € + 1.502,53 €) (ikus 2.5)	-3.756,33 €
- Hobaria (ikus 2.6)	-3.000,00 €
<b>Lanaren etekin garbia (70.318,42 € - 6.756,33 €) (ikus 2.7)</b>	<b>63.562,09 €</b>
Kapital higiezinaren etekin osoa (ikus 3.2)	6.000,00 €
- Gastu kengarriak (ikus 3.3)	-1.800,00 €
<b>Kapital higiezinaren etekin garbia (6.010,12 € - 1.803,04 €)</b>	<b>4.200,00 €</b>
Zerga oinarri orokorra (63.562,09 € + 4.207,08 €) (ikus 9)	67.762,09 €
Murrizpena batera tributatzeari zilegi	-4.218,00 €
<b>Oinarri likidagarri orokorra (ikus 10)</b>	<b>63.544,09 €</b>



<b>Haserako kuota osoa (ikus 11)</b>	<b>20.130,64 €</b>
Kuota txikitzea	-1.389,00 €
<b>Kuota osoa</b>	<b>18.741,64 €</b>
<b>Kenkaria ondoren ahaideagatik (ikus 12.3.1)</b>	<b>-585,00 €</b>
Atxikipenak (6.467,76 € + 6.091,69 € + 1.260,00 €)	13.819,45 €
<b>Kuota diferentziala (ikus 13)</b>	<b>4.337,19 €</b>

### 3. Bi aitorten: batean banaka tributatzen da eta bestean batera

Banakako aitorten bat eta baterako beste bat aurkez daitezke aldi berean: bigarrena semearekin batera egingo da, urte osoagatik; eta lehenengoa, ezkontideari dagokiona, heriotza egunera artekoa izango da (2017/01/01etik 2017/10/31ra arte).

	<b>Zergaduna eta adingabeko semea (baterako tributazioa)</b>	<b>Hildako ezkontidea (banakako tributazioa)</b>
Lanaren etekin osoak (ikus 2.4)	37.262,75 €	33.055,67 €
- Gizarte Segurantzza (ikus 2.5)	-2.253,80 €	-1.502,53 €
- Hobaria (ikus 2.6)	-3.000,00 €	-3.000,00 €
<b>Lanaren etekin garbia</b>	<b>32.008,95 €</b>	<b>28.553,14 €</b>
Kapital higiezinaren etekin osoa (ikus 3.2)	6.010,12 €	
- Gastu kengarriak (ikus 3.3)	-1.803,04 €	
<b>Kapital higiezinaren etekin garbia</b>	<b>4.207,08 €</b>	
<b>Zerga Oinarri orokorra (ikus 9)</b>	<b>36.216,03 €</b>	<b>28.553,14 €</b>
Murrizpena batera tributazioagatik	-3.665,00 €	
<b>Oinarri likidagarri orokorra (ikus 10.2)</b>	<b>32.543,95 €</b>	<b>28.553,14 €</b>
<b>Haserako Kuota osoa</b>	<b>8.435,88 €</b>	<b>7.217,38 €</b>
Kuota txikitzea	-1.389,00 €	-1.389,00 €
<b>Kuota osoa</b>	<b>7.046,88 €</b>	<b>5.828,38 €</b>
Kenkaria ondoren ahaideagatik (ikus 12.3.1)	-292,50 €	-292,50 €
<b>Kuota likidoa (ikus 12)</b>	<b>6.754,38 €</b>	<b>5.535,88 €</b>
- Lanaren atxikipenak eta higiezinarenak	7.727,76 €	6.091,69 €
<b>Kuota diferentziala (ikus 13)</b>	<b>-973,38 €</b>	<b>555,81 €</b>

## 1.10 Nola aurkez daiteke aitortpena?

**Zergaren aitortpena aurkezteko hiru modalitate daude:**

1. Internet bidez.
2. Mekanizatua.
3. Autolikidazio proposamena

### 1.10.1 Internet bidezko modalitatea

Modalitate honen erabiltzaileak izan daitezke:

- **Zergadunak:** partikularrak eta enpresariak zein profesional autonomoak
- **Ordezkarik** profesionalak: aholkulari eta kudeatzaileak

## Prozedura

Hona hemen urteko errenta aitortpena internet bidez aurkezteko urratsak:

### 1.- Datuak betetzea:

ZERGABIDEA laguntza programa erabili behar da. Gure webgunean bakarrik eskura daiteke. Zergadunek eta ordezkari profesionalak programa berdina dute.

Bi modutan bete daitezke aitortenak: datuak zuzenean sartuz edo ZERGA INFORMAZIOA gure webgunetik jaitziz. Programatik bertatik jaitzi daitezke datu fiskalak, edo, lehendabizi ordenagailuan gorde eta, horren ondoren, handik programara inportatu.

Noren datu fiskalak jaitzi daitezke ZERGA INFORMAZIOA ataletik?

- **Zergadunak:** norberaren datuak, edo 001 ereduarekin horretarako baimena eman dieten pertsonenak, pasahitza edo sinadura elektronikoa erabilia.
- **Ordezkarik** profesionalak: 001-P edo 001-RP ereduarekin horretarako baimena eman dieten pertsonen datuak, sinadura elektronikoa erabilia.

### 2.- Transmititzea:

- **Zergadunak:** kontraste datu bat sartuz (aurreko urteetako errenta aitorten baten kuotaren zenbatekoa), edo pasahitz operatiboa zein sinadura elektronikoa erabiliz.
- **Ordezkarik** profesionalak: sinadura elektronikoa erabiliz.

### 3.- Frogagiriak aurkeztea (zergadunak edo ordezkari profesionalak):

**A) Ez da frogagiririk aurkeztu behar. Horrela, aitortpena bidalitakoan amaituko da aurkezpena, betiere baldintza hauek guztiak betetzen badira:**

- Transmisioaren kontraste gisa pasahitz operatiboa edo sinadura elektronikoa erabiltzea.
- Ohiko etxebizitza aitortenaren urtean erosita ez egoitea, eta aitortpenean adierazitako datuak eta ZERGA INFORMAZIOA zerbitzuan jasotakoak berdinak izatea.

**B) Aurreko A) puntuko baldintzak betetzen ez direnean frogagiriak aurkeztuko dira.**

Aitortpena aurkeztutzat jotzen da bigarren tramite hau bete denean.

Horrela aurkeztuko dira:

**Kontraste datua, pasahitz operatiboa zein sinadura elektronikoa erabiltzen duten zergadunak**

- Internet bidez: frogagiriak aurkezteko lehentasuneko modua. Lehendabizi, eskaneatu frogagiriak, fitxategi bat edo gehiago lortzeko. Ondoren, aukeratu aitortpena ZergaBideako gune urdinean eta erantsi fitxategiak.
- Aurrez aurre: gure bulego edo Posta Bulegoetan, entregatu autolikidazio orriaren bi kopia, DINA4 tamainako kartazal zuri batean sartuta. Atera bi kopia horiek ZergaBideako gune urdinean. Jarri kartazalaren kanpoaldean IFZ eta izen-abizenak.

**Ordezkarik profesionalak**

- Internet bidez: Frogagiriak aurkezteko **modu bakarra**. Lehendabizi, eskaneatu frogagiriak, fitxategi bat edo gehiago lortzeko. Ondoren, aukeratu aitortpena ZergaBideako gune urdinean eta erantsi fitxategiak.

### 1.10.2 Modalitate mekanizatu

Edozein motatako errentak izan dituzten zergadunek erabili dezakete aitopen mekanizatuaren modalitatea, ondoko hauek izan ezik:

- Jarduera ekonomikoaren etekin garbia zuzeneko zenbatespen arruntaren bitartez kalkulatu dutenek. Era berean, jarduera ekonomikoaren etekina kalkulatzeko zuzeneko zenbatespen erraztua erabiltzen duten zergadunek ere ezin dute modalitate mekanizatu erabili inbertsioen eta beste jardueren kenkarietara biltzen diren<sup>12</sup>.
- Errenten egozpenak lortzen dituzten zergadunek (nazioarteko gardentasun fiskala, interes ekonomikoko taldeen eta aldi baterako enpresa batasunen egozpenak, eta paradisu fiskalean kokatutako inbertsio kolektiboko erakundeak)<sup>13</sup>.
- Zergaldiaren barruan hamar ondare eskualdaketa baino gehiago egin dituzten zergadunek.
- Eskualdaketen ondorioz ondare irabazi edo galerak izan dituzten zergadunek, eskurapena kostu gabekoa izan bada (oinordetza edo dohaintzaren bitartez).

Autolikidazio hau hurrengo 1.13 apartatuan zerrendatzen diren Errenta Mekanizatuko Bulegoetan egingo da. Horretarako, zergadunak hitzordua eskatu beharko du alde aurretik 902 100 040 telefonora deituz edo Interneteko helbide honetan sartuz: [www.gipuzkoa.eus/ogasuna/renta](http://www.gipuzkoa.eus/ogasuna/renta).

Aitortzaileak behar diren ziurtagiriak eta autolikidazioaren emaitza helbideratzeko kontu korrontearen zenbakia aldean dituela joan behar du dagokion bulegora. Ez du beste ezein inprimakirik eraman behar, enpresariak eta profesionalak izan ezik. Azken horiek 6. eranskina aurkeztuko dute euren jardueren etekin garbia kalkulatzeko erabiltzen duten erregimena zein den kontuan hartuz (zeinu, indize edo modulu bidezko zenbatespen objektiboa edo zuzeneko zenbatespen erraztua).

Aitopena zergaduna ez den beste pertsona batek aurkezten bada, zergadunaren baimena eta beronen IFZren kopia aurkeztuko ditu.

### 1.10.3 Autolikidazio proposamena

Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak proposatutako autolikidazioa, adostasuna emateko, jasotzen duten zergadunek erabili dezakete modalitate hau.

Autolikidazio proposamenetik ateratzen den kuota diferentziala ordaintzeko edo itzultzeko izan daiteke.

Adostasuna telefonoz eman ahal izango da, proposamenaren adierazten den telefonora deituz (902 100 040), edo, bestela, bide telematikoa erabiliz Ogasun eta Finantza Departamentuaren web ofiziala dela medio: <http://www.gipuzkoa.eus/ogasuna/renta>.

Proposamena behin berretsi ondoren –zergadunari kontraste bat eskatuko zaio horretarako–, aitopen-likidaziotzat hartuko da lege ondorioetarako.

Zergadunak ez badu adierazten, ezarrita dagoen epean, proposamenarekin ados dagoela, jarduketa administratiboa ez dela egin joko da, eta zergadunak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitopena aurkeztu beharko du, beti ere horretara behartuta badago.

### 1.11 Zein da aitopena aurkezteko epea?

Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako proposamenari adostasuna emateko epea **2018ko apirilaren 16tik ekainaren 30era** bitartekoa da, biak barne.

Gainerako aitopen modalitateetarako, aitopenak aurkezteko epea **2018ko apirilaren 23an hasi eta ekainaren 30ean amaituko da**, biak barne.

### 1.12 Nola egiten da aitopenen emaitza ordaindu eta itzultzeko?

Emaitza itzultzeko bada, itzulketaren zenbatekoa kontuan ko-  
bratzen da banku transferentzia bidez.

Emaitza ordaintzeko bada, posible da dena batera ordaintzea (%100) ordainketa bakarra eginez, edo ordainketa zatikatzea, hau da, lehendabizi zorraren %60 ordaintzea eta, gero, gainerako %40a ordaintzea. Hiru ordainketa modu daude:

- helbideratzea: ordaintzeko modu nagusia da hau. Haren bitartez, zorraren zenbatekoa zergadunaren kontuan kargatzen da. Ordainketa bakarra aukeratzen bada, **2018ko uztailaren 2an** egiten da kargua, eta bi ordainketa aukeratzuz gero, berriz, **uztailaren 2an** eta **azaroaren 12an** kargatzen da zenbatekoa.
- ordainketa-gutuna: ordainketa-gutuna gure bulegoetan eskura daiteke, baita webgunean ere internet bidez aurkezten diren aitopenen kasuan. Gutuna eskuan hartuta, zergaduna finantza entitate laguntzaile batera hurbiltzen da ordainketa bertan egiteko, edozein unetan, lehen adierazitako egunak iritsi arte.
- ordainketa-pasabidea: internet bidez aurkezten diren aitopenek bakarrik erabili dezakete ordainketa modu hau. Edozein unetan egin daiteke ordainketa, lehen adierazitako egunak iritsi arte.

### 1.13 Non aurkeztu behar da aitopena?

Aitopen mekanizatu aukeratzen bada, aitopena dagokion bulegoan aurkeztuko da. Hurrengo tauletan bulego bakoitzak zein herri hartzen dituen kontsulta daiteke (1. taula), bai eta herri bakoitzari zein bulego dagokion ikusi ere (2. taula). Udal-herria zergaduna bizi den herria izango da.

<sup>12</sup> Inbertsioen eta beste jarduera batzuen kenkariak “Kuota likidoa eta kenkariak” deituriko kapituluaren aztertzen dira, 12.6.1. apartatuan.

<sup>13</sup> Ikus 7. kapituluaren, egotzitako errentei buruzkoa.

Aitorpen mekanizatua: 1. taula Bulego eta udalerrien zerrenda alfabetikoa			
Bulegoa	Udalerrria	Helbidea	Zergadunaren herria
1	Azpeitia	Julian Elorza etorb., 3	Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Bidania-Goiaz, Errezil, Zestoa, Zumaia.
2	Beasain	Urbialde kalea, 1	Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio, Gabiria, Gainza, Idiazabal, Itsaso, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama, Zerain, Zumarraga.
3	Bergara	Toki Eder plaza 5, behea	Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate-Mondragón, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga, Oñati.
4	Eibar	Arragueta kalea, 2	Deba, Eibar, Elgoibar, Mendaro, Mutriku, Soraluze.
5	Hernani	Latxunbe Berri kalea, 8-9	Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta.
6	Irun	Frantzisko Gaintza kalea 1, atzealdea (Iparralde hiribidetik sartuta)	Hondarribia, Irun.
7	Errenteria	Santa Klara plaza, 2	Lezo, Oiartzun, Pasaia, Errenteria.
8	Tolosa	San Frantzisko kalea, 45	Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Legorreta, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil.
9	Donostia	Antso Jakituna hiribidea, 9	Aia, Getaria, Orrio, Usurbil, Zarautz, eta Donostiako Amara Berria eta Amara Zaharra auzoak.
10	Donostia	Sekundino Esnaola kalea, 10-12	Donostia: Altza, Egia, Gros, Intxaurren, Bidebieta, Mirakontxa, Erdia, Alde Zaharra, Loiola, Martutene, eta Donostiako gainerakoa.
11	Donostia	Errotaburu pasealekua, 2	Donostia: Igeldo, Ibaeta, Añorga, Antigua eta Aiete.

Aitorpen mekanizatua: 2. taula Udalerrien zerrenda alfabetikoa eta bakoitzari dagokion bulegoa.					
Abaltzisketa	8	Donostia: Bidebieta	10	Leaburu	8
Aduna	8	Donostia: Erdialdea	10	Legazpi	2
Aia	9	Donostia: Egia	10	Legorreta	8
Aizarnazabal	1	Donostia: Gros	10	Leintz-Gatzaga	3
Albiztur	8	Donostia: Ibaeta	11	Lezo	7
Alegia	8	Donostia: Intxaurrenondo	11	Lizartza	8
Alkiza	8	Donostia: Loiola	10	Mendaro	4
Altzaga	2	Donostia: Martutene	10	Mutiloa	2
Altzo	8	Donostia: Mirakontxa	10	Mutriku	4
Amezketeta	8	Donostia: Alde Zaharra	10	Oiartzun	7
Andoain	5	Donostia: Igeldo.	11	Olaberria	2
Anoeta	8	Donostia: Gainerakoa	10	Oñati	3
Antzuola	3	Eibar	4	Ordizia	2
Arama	2	Elduain	8	Orendain	8
Aretxabaleta	3	Elgeta	3	Orexa	8
Arrasate-Mondragón	3	Elgoibar	4	Orio	9
Asteasu	8	Errezil	1	Ormaiztegi	2
Astigarraga	5	Eskoriatza	3	Pasaia	7
Ataun	2	Ezkio	2	Errenteria	7
Azkoitia	1	Gabiria	2	Segura	2
Azpeitia	1	Gainza	2	Soraluze	4
Baliarrain	8	Gaztelu	8	Tolosa	8
Beasain	2	Getaria	9	Urnietta	5
Beizama	1	Hernani	5	Urretxu	2
Belauntza	8	Hernialde	8	Usurbil	9
Berastegi	8	Hondarribia	6	Villabona	8
Bergara	3	Ibarra	8	Zaldibia	2
Berrobi	8	Idiazabal	2	Zarautz	9
Bidania-Goiatz	1	Ikaztegieta	8	Zegama	2
Deba	4	Írun	6	Zerain	2
Donostia: Altza	10	Írura	8	Zestoa	1
Donostia: Amara Berria	9	Itsaso	2	Zizurkil	8
Donostia: Amara Zaharra	9	Itsasondo	2	Zumaia	1
Donostia: Antigua	11	Larraul	8	Zumarraga	2
Donostia: Añorga	11	Lasarte-Oria	5		
Donostia: Aiete	11	Lazkao	2		

### 1.14 Zergaren zati bate erlijio katolikora eta xede sozialetara ematea

Dagokion laukian “X” bat jarritz, zergadunek adieraz dezakete zertarako nahi duten erabili kuota osoaren % 0,7:

- Eliza Katolikoari laguntzeko.
- Interes sozialeko erakundeetarako.

### 1.15 Hautazko likidazioa (lanaren etekinak)

#### 1.15.1 Nork duen aukera

Zergadunak jaso dituen lan etekin gordinak 12.000,00 eurotik gorakoak eta 20.000,00 eurotik beherakoak direnean, eta aitortpena aurkeztera behartuta badago lan etekinak jaso dituelako (ordaintzaile bat baino gehiago, lan kontratu bat baino gehiago, ezkontidearen pentsio konpentsagarriak, etab.)<sup>14</sup> bi modutara ordain dezake zerga:

- PFEZren xedapen orokorre jarraiki.
- lanaren etekin gordinak bakarrik kontuan hartuz, eta horretarako, **hautazko likidazioaren** orria bete beharko du.

#### 1.15.2 Nork ez duen aukerarik

Besteak beste, honako zergadun hauek ezin dira aurreko apartatuan aipatu den aukeraz baliatu:

- **20.000,00** eurotik gorako lan etekin gordinak jaso dituztenak.
- Kapitalaren etekinengatik eta ondare irabaziengatik (salbetsitakoak barne bi kasutan) 1.600,00 euro gordin baino gehiago lortu dituztenak.
- Jarduera ekonomikoaren etekinak lortu dituztenak.
- Salbuespen, hobari, murrizketa, kenkari edo beste edozein zerga onuraz gozatzeko ezarrita dauden baldintza, epe edo zirkunstantzietako bat betetzen ez dutenak, baldin eta horrek berekin badakar Zerga Administrazioari zirkunstantzia horren berri ematea edo erregularizazio edo dirusarreraren bat egin behar izatea.

#### 1.15.3 Prozedura

Lehendabizi kuota osoa kalkulatu behar da, eta horretarako atxikipen portzentajea aplikatuko zaio lan etekinen baturari. Ondoren, kuota horretatik kenduko dira lan etekinei egindako atxikipenak eta konturako sarrerak.

Aplikatu behar den atxikipen portzentajea jarraian agertzen den taula orokorretik aterako da:

- “Urteko etekintzat” diruz eta gauzen bidez jasotako ordainsarien batura hartuko da (pentsio planei eta BGAEei egindako egozpenak sartu gabe).
- “Ondorengo ahaideen kopurutzat”, kenkari honetarako eskubidea ematen dutenen kopurua hartuko da. Pentsioak eta hartzeko pasiboak jasotzen dituztenek ondorengo ahaide bati dagokion zutabea hartuko dute kontuan taulako atxikipen portzentajea kalkulatzeko, beti ere kenkarirako eskubidea ematen dieten ondorengo ahaideak bi edo gehiago ez badira.

Zergaduna aktiboan dagoen langile desgaitua bada eta, eta lanaren hobaria gehitzeko eskubidea badu<sup>15</sup>, lehen-lehenik atxikipen taula orokorra aplikatuko du. Horrela lortutako atxikipen portzentajeari behar diren puntuak kenduko zaizkio, taula orokorraren ondoren ageri den desgaituen taula behin aplikatuta.

Atxikipen portzentajea lortutakoan, lan etekin gordinen baturari aplikatu behar zaio. Horrek kuota osoa emango du. Kuota horri atxikipenak eta konturako sarrerak kenduz kuota diferentziala lortzen da.

Tributatzeko prozedura hau erabiliz gero, ez da inoiz itzulketarik egingo.

TAULA OROKORRA

URTEKO ETEKINA		ONDORENGO AHAIDEEN KOPURUA						
Euroak beheko muga	Euroak goiko muga	0	1	2	3	4	5	≥6
0,01	11.690,00	%0	%0	%0	%0	%0	%0	%0
11.690,01	12.160,00	%1	%0	%0	%0	%0	%0	%0
12.160,01	12.670,00	%2	%0	%0	%0	%0	%0	%0
12.670,01	13.220,00	%3	%1	%0	%0	%0	%0	%0
13.220,01	13.820,00	%4	%2	%0	%0	%0	%0	%0
13.820,01	14.480,00	%5	%3	%0	%0	%0	%0	%0
14.480,01	15.210,00	%6	%4	%2	%0	%0	%0	%0
15.210,01	16.010,00	%7	%5	%3	%0	%0	%0	%0
16.010,01	17.210,00	%8	%6	%4	%0	%0	%0	%0
17.210,01	18.620,00	%9	%7	%5	%2	%0	%0	%0
18.620,01	19.960,00	%10	%9	%7	%4	%0	%0	%0
19.960,01	21.470,00	%11	%10	%8	%5	%1	%0	%0

DESGAITUEN TAULA

(Taula orokorraren gaineko murrizpena)

URTEKO ETEKINA		GEHITUTAKO HOBARIA	
Euroak beheko muga	Euroak goiko muga	M1	M2
0,01	22.960,00	9	12

14 Ikus kapitulu honetako 1.2 apartatuan nor dagoen aitorzera behartuta.

15 Ikus lanaren hobariei buruzko 2.6 apartatua.

---

## Adibidea

Demagun ezkongabe dagoen eta seme-alabarik ez duen zergadun batek bi lan etekin izan dituela, biak ere, bi kontratutatik etorriak. Aitorpenari begira, honako datu fiskal hauek bakarrik dira garrantzizkoak:

	1. kontratua	2. kontratua
Etekin osoa	10.392,00 €	8.714,17 €
Gizarte Segurantzza	250,36 €	200,40 €
Jansandako atxikipena	103,92 €	0,00 €

Zerga ordaintzean, bi aukera izango ditu zergadunak:

### 1. aukera: modu orokorrean tributatzea

Laburki, honela likidatuko litzateke Zerga:

Lanaren etekin osoa (10.392,00 € +8.714,17 €)	19.106,17 €
Gizarte Segurantzaren gastua	- 450,76 €
Diferentzia	18.655,41 €
Lanaren hobaria	- 3.000,00 €
Lanaren etekin garbia	15.655,41 €
Oinarri likidagarri orokorra	15.655,41 €
Kuota osoa	3.606,01 €
Kuota txikitzea	- 1.389,00 €
Atxikipenak (103,92 €)	- 103,92 €
Kuota diferentziala	2.113,09 €

### 2. aukera: hautazko tributazioa

Zerga honela likidatuko litzateke:

Etekin osoen batura	19.106,17 €
Atxikipen portzentajea	%10
Kuota	1.910,62 €
Atxikipenen batura	- 103,92 €
Kuota diferentziala	1.806,70 €

Zergadunak bigarrena aukeratuko du zerga gutxiago ordaintzea dakarkiolako.

---